



INTZA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

INTZA (ARAITZ)

Migel, Iñasagasti baserriko nagusia

Baserri honek du izena Iñasagasti, ta hemengoa, ni naiz Miel, nausi o itten dutena, etxeko semea.

Bai guk e, eitten giñun, oaiñ e bai, ta len iguala eitten zen Urtezar da, Urteberri ta, Eguarri ta, hok danak, familitaa bildu, da familitan eitten zen hemen eitten zena, behin otordutxo bat einda, oaiñ bezala ez, bixigua ta haragia ta hoik etzien izaten, baño geo, arkumea zala, o beste postren bat izaten zen baño, gaztaiñek, gehiena gaztaiñ errea izaten zen, turrunik eta hola lenao etzen izaten, ba lenao juxtu-juxtu-juxtua bizitzen zen hemen jendea, ta ordun e hoixe izaten zen, etxean arkume bat balin bazen ba, hoitaako, Eguarri eo, Gauonetaako arkume bat erre ta, geo atzekaldetik postrea, gaztaiñek eta, ya holaxe, oaiñ ez, oaiñ turruna ta txanpaiñe ta hoik...

– *Eta kantuan edota eskean eta ibiltzen al zineten?*

– *Ba, ume koxkorretan ebiltzen giñen gu de oaiñ bezala, igual-igual segitzen du harek e, urdun bezalaxe igual-igual ebiltzen da.*

Hemen baserrik banaka-banaka die herri hontan, oaiñ asko gutxitu in da, bajatu in da, hemengo baserrikoak hustu eiñ die ta, baño hemen lenago baserri asko zen hemen, berroeita gehio baserri zien jendea bizitzen zenak, baño oaiñ gutxigo daue ta umeak e bai, umeak e gu giñela igual izaten giñen hemen hirurogei ume ta, baño oaiñ eztao, oaiñ beatzi hamar eo eztaiz ze kontatzen (?) ttun.

Hoi de ez, ez, ez, bakoitze bee koadrilletan ebiltzen zen, igual izango giñen sei batea ta, bi igual da bat igual da, da gu biño zarraguak e ebiltzen zien eh!, gaztetxoak bakarrak ez, geo zartxogoak e bai, da geo izaten tzuen, hortxe, hemezortzi, hemeretzi urte hogeitamar urte bitarteko hoik e been esketxoa izaten zen lenao Errege eunetan, ya hoi bukatu da...

– *Neskak eta mutilak edo mutilak bakarra?*

– *Mutillak bakarra, mutillak bakarra ebiltzen tzien eskean Errege eunetako*

hortan, baño Eguarritan ez, Eguarritan neska ta motil da denak juntoan.

– Orduan eskatzen zenaren ordainez zerbait kantatu edo ta egin beharko zen, noski.

– Kantuk e izango zien, guk asko ezkendun ikasi, baño, kantik e izango zien, bai, Gauonetan da, Errege eunetan e, kantatu ta hemen, gue aurrekoak ya gu baño gehiago zien, da gue ondorekoak oaiñ gutxigo die, ya oaiñ bajatu in da, ya gue aurrekoak ebiltzen tzien, zarragoak, zarragoak been soiñua hartu, akordeonakin, etxez etxe eskean kantatuz.

– Eta zer egiten ziren, koplak edota zer ziren?

– Bai, bai, oaiñ bezala, oaiñ e Gauonetan kantatzen den kanta bezalaxe kantatzen zittuen ordun ee.

– Baina zuek ba al zenuten orduan Olentzeroren notizi?

– Ez, ez, ez, hemen etzan Olentzeron da notizik, hoi geoz ataldua da hemen bei (?) hori ta, Betelu aldean da hor eitten dittue, baño hemen ezan ebiltzen holakoik.

– Gabon kantik beraz, edo ...

– Gabon kantuik, «Jesus jai da...», hoi besteik etzen hemen, geo, oaiñ e, oaiñgoak gehio dakie ta, gehio dakiu oaiñ.

– Eta Errege bezperan egiten zen orduan baita berriz ere, beste erronda bat.

– Bai, Errege bezperan, Errege bezperan eitten zen, motillek e, denak juntatu ta denak apezan etxea juntatzen giñen gaiñea, apeza zegon tokia, da, apaiza bazkaltzen hasteako hantxe juntatu ta elkartzen giñen ta, bee aginaldoa esaten zigun harek, da harek berea ematen zun ordun, da gaiñea ez hola pezta bat eta bi ta, ez, ez, harek dirua de ematen zunean asko ematen zun, da geo txorizo bat haundia ematen zun ogi batekin, da han denak trago bat eiñ, da denak handik partitzen giñen denak, barrio bakoitzetaa edo horrenbeste...

– Eta gero etxetan ematen zena, dirutan?, ez, jeneroa gehiago ez?

– Etxetan eozeiñek ematen tzuen, ba, igual emango zizuen dozenerdi at arroltze eo ogi bat eo, o beste atek dirua emango zizun, da ematen zena gutxin-gutxin-gutxina de dena ona izaten zen, etzun iñork ezta ezer e esaten, duro bat ematen balin bazun hua hartu ta umore earrean joaten zen, da etxe bat izaten zen denetan, bat, azkenean bukatzen zenean dena biltzen zena, bukatzen zenean, ba merienda eitten zena, behin meriendatxoa han eitten zen, da ilunabarrean denak kontzejue.

– Eta gero bildutako guzi horrekin ze egiten zen?

– Horrekin eitten giñun, askotan arraultze asko biltzen zen, da arraultz hoi

eitten zan bee hartan jateko aiña utzi ta gaiñeakoa saldu o... saldu o, subastan eitten zen, bakarren batek hartzen zun, beti izaten zen han hartzen zuna, oaiñ jateko gehiegi balin bazen, ba, gaiñeako hue galdu eztizen ba, eitten zen subastan, baño koadrillakoa, bee hartan subastan hartzeko, bee hartan hartzen zen hue, da igual berriz atzea eitten zen nahiz subastan batek hartzen balin bazun, handik bi-hiru egunea eo, berriz atzea hartu denak haik, eta berriz atzea bee hartan jan, da eitten tzen eo, hartzen balin bazen han diruik eo eitten tzen geo ba harrekin bazkari bat eo...

– Eta garai haietan sutara enbor bat egin eta hura gordetzen zenik eta holako ohiturarik ezagutu duzue?

– Ez, hoi urtean, zean izaten zen, Pazkotan, su berria eta hoi ez, ez.

– Su berria edo Pazkuan beraz, Aste Santu ondoko Pazkuan?

– Bai, bai, urdun, urdun izaten zan, hor daon su hoi dana kendu, dana kendu, da handik ekartzen zan berria horrea sartu ta urdun jarri sutan berriz.

– Nondik «handik ekarri»?

– Hoi elizan, elizan eitten zun apaizak, ure ta sue berrie, da oaindo ez tie gaiñea urte asko hemen galdu dala gauz hoi, oso urte gutxi,

– Eta beraz Pazko egunean izango zen, Pazko bezperan?

– Pazko aurreko launbeta o...

– Apezak egiten zuen eliza atarian sua,

– Bai, bai, bai, sue handie eitten tzen da, gero sue beinkatzen zen da, bakoitzek bee, zea suko zea bat esaten diogu, nardari eo, halako koxkor baten hartu ta ekartzen tzen sue ta, urdueko, handik etortzeako hemengo sue bukatue egon behar zun, garbi, hangoakin piztu, su berrie ta ure berria, ta..., ure berriz jartzen zun, balde batean eo, han jartzen zun ure apaizak eta hue bedeinkatzen zun han, ta geo beste bat joan, da geo txarroakin eo botillekiñ eo hartu ta ekartzen tzen.

– Eta etxean edan edo gorde egiten zen hori?

– Etxean gordetzen tzan hue, ta harrekiñ eitten zien Aste Santun, Aste Santun kanpoak beeinkatu ta gurutzeak eiñ, hoi de beste bat galdua da hemen.

– Eta bedeinkatu egiten zuen, apeza etorrita edo etxeko nagusiak?

– Norbeak, etxeko nagusiek joan da terreno guziak beeinkatzen zittun, honek beeinkatzen dittu oaiñ ee, mendie joaten dienean hemen ardik, eoten diranen artzaie mendie joaten hasten daneakin batean, honek beeinkatzen dittu ardik gora joateako.

Erramue, erramue, hostoa hartu ta, erramu hostoakin nik bedeinkatzen zaituztet, eta dale tiki-taka ta «ya está», eitten du ta...

– *Eta bedeinkatzen dira zer, zer, belardiak, ardiak... zer?*

– *Denak, denak, ardiik eta belardiik eta soroak eta denak, denak beeinkatzen die, hoik aurrena apaizak Pazkua bigarreanean danak beeinkatzen dittu eh!, hortik, San Miel etortzen danean, San Miel aingerue etortzen denean, San Miel aingeruekin batean herri guzie dena beeinkatzen du harrek, baño hor norberak bee terrenoak ein da, gurutzeak, oaiñ ez due... Gurutzeak ein, da gurutzeak terreno guzietan hantxe eoten zien, Aste Santuan, da San Joanetan elorri gurutzeak jarri, hoi de betikoa, hemengo legea, baño, oaiñ tonterik emen diela ta, oso etxe gutxitan ekusten da oaiñ elorriekiñ eindako gurutze bat, da terrenotan ee gurutzeak oso gutxi... Ateburun, ateburun, ateburu guzitan, gue etxean, bi etxetan badao, han e bai ta hemen e bai, elorri gurutzeak hor, bi burutan hortxe eoten dia jarrita. Baña tonterik, lengo zarretako gauze danak ez tie denak tonterik eh!, hoik gazteak etzala pentsa lengo zarrak eitten tzittuenak ya tonterik tiela, lengo zarrak eitten tzittuen gauze ona asko, oaiñ gazteak eingo ez tittuunak gaiñea, da ya bazterrea utzi dittuunak, da ya behin gauze bazterrea uzten danetik, ya ezta hasten.*

INTZA (ARAITZ)

Migel, Iñasagasti baserriko nagusia

Baserri honek du izena Iñasagasti, eta hemengoa, ni naiz Migel, nagusi edo egiten dudana, etxeko semea.

Bai guk e¹, egiten genuen, orain ere bai, eta lehen iguala egiten zen Urtezar eta, Urteberri eta, Eguberri eta, horiek denak, familietara bildu, eta familietan egiten zen hemen egiten zena, behin otordutxo bat eginda, orain bezala ez, bixigua eta haragia eta horiek ez ziren izaten, baina gero, arkumea zela, edo beste postreren bat izaten zen baina, gaztainak, gehiena gaztain erreza izaten zen, turroirik eta horrela lehenago ez zen izaten, ba lehenago justu-justu-justu bizitzen zen hemen jendea, eta orduan ere horixe izaten zen, etxean arkume bat baldin bazen, ba, horietarako, Eguberri edo Gabonetarako arkume bat erre eta, gero atzekaldetik postrea, gaztainak eta, jada horrelaxe, orain ez, orain turroia eta txanpaina eta horiek...

– Eta kantuan edota eskean eta ibiltzen al zineten?

– Ba, ume koskorretan ibiltzen ginen gu ere orain bezala, igual-igual segitzen du hark ere, orduan bezalaxe igual-igual ibiltzen da.

Hemen baserriak banaka-banaka dira herri honetan, orain asko gutxitu egin da, bajatu egin da, hemengo baserriak hustu egin dira eta, baina hemen lehenago baserri asko zen hemen, berrogeita gehiago baserri ziren jendea bizitzen zenak, baina orain gutxiago daude eta umeak ere bai, umeak ere, gu ginela igual izaten ginen hemen hirurogei ume eta, baina orain ez dago, orain bederatzi-hamar edo ez dakit zer kontatzen (?) dituen.

Hori ere ez, ez, ez, bakoitza bere koadriletan ibiltzen zen, igual izango ginen sei batera eta, bi igual eta bat igual eta, eta gu baino zaharragoak ere ibiltzen ziren eh!, gaztetxoak bakarrik ez, gero zahartxoagoak ere bai, eta gero izaten zuten, hortxe, hemezortzi, hemeretzi urte hogeitamar urte bitarteko horiek ere beren esketxoak izaten zen lehenago Errege egunetan, jada, hori jada bukatu da...

– Neskak eta mutilak edo mutilak bakarra?

– Mutilak bakarra, mutilak bakarra ibiltzen ziren eskean Errege egunetako

(1) e hori ez da ezer, hizketaren eten bat betetzeko soinua besterik, hizkuntza mintzatuan hagitz komuna. Beste batzuetan «ere» lokailuaren laburtzapena izan daiteke.

horretan, baina Eguberrietan ez, Eguberrietan neska eta mutil eta denak juntoan.

– Orduan eskatzen zenaren ordainez zerbait kantatu edo eta egin beharko zen, noski.

– Kantuak ere izango ziren, guk asko ez genuen ikasi, baina, kantak ere izango ziren, bai, Gabonetan eta, Errege egunetan ere, kantatu ere hemen, gure aurrekoak jadanik gu baino gehiago ziren, eta gure ondorengoak orain gutxiago dira, jada orain bajatu egin da, jada gure aurrekoak ibiltzen ziren, zaharragoak, zaharragoak beren soinua hartu, akordeonarekin, etxez etxe eskean kantatuz.

– Eta zer egiten ziren, koplak edota zer ziren?

– Bai, bai, orain bezala, orain ere Gabonetan kantatzen den kanta bezalaxe kantatzen zituzten orduan ere.

– Baina zuek ba al zenuten orduan Olentzeroren notizi?

– Ez, ez, ez, hemen ez zen Olentzeroren eta notizirik, hori geroz ataldua da² hemen, behe (?) hori eta, Betelu aldean eta hor egiten dituzte, baina hemen ez zen ibiltzen horrelakorik.

– Gabon kantak beraz, edo...

– Gabon kanturik, «Jesus jaio da...», hori besterik ez zen hemen, gero, orain ere, oraingoek gehiago dakite eta, gehiago dakigu orain.

– Eta Errege bezperan egiten zen orduan baita berriz ere, beste erronda bat.

– Bai, Errege bezperan, Errege bezperan egiten zen, mutilak denak juntatu eta denak apezaren etxera juntatzen ginen gainera, apez zegoen tokira, eta, apaiza bazkaltzen hasterako hantxe juntatu eta elkartzen ginen eta, bere aginaldoa esaten zigun hark, eta hark berea ematen zuen orduan, eta gainera ez horrela pezeta bat eta bi eta, ez, ez, hark dirua ere ematen zuenean asko ematen zuen, eta gero txorizo bat handia ematen zuen ogi batekin, eta han denek trago bat egin, eta denak handik partitzen ginen denak, barrio bakoitze-tara edo horrenbeste...

– Eta gero etxeetan ematen zena, dirutan?, ez, jeneroa gehiago ez?

– Etxeetan edozeinek ematen zuen, ba, igual emango zizuten dozenerdi bat arraultze edo ogi bat edo, edo beste batek dirua emango zizun, eta ematen zena gutxien-gutxien-gutxiena ere, dena ona izaten zen, ez zuen inork ezta ezer ere esaten, duro bat ematen baldin bazuen hura hartu eta umore ederrean joaten zen, eta etxe bat izaten zen denetan, bat, azkenean bukatzen zenean dena biltzen zena, bukatzen zenean, ba, merienda egiten zena, behin meriendatxoa han egiten zen, eta ilunabarrean denak kontzejura.

– Eta gero bildutako guzi horrekin zer egiten zen?

– Horrekin egiten genuen, askotan arraultze asko biltzen zen, eta arraultz

(2) Azaldua, agertua?

hori egiten zen bere hartan jateko adina utzi eta gainerakoa saldu edo..., saldu edo, subastan egiten zen, bakarren batek hartzen zuen, beti izaten zen hartzen zuena, orain jateko gehiegi baldin bazen, ba, gainerako hura galdu ez zedin ba, egiten zen subastan, baina koadrilakoa, bere hartan subastan hartzeko, bere hartan hartzen zen hura, eta igual berriz atzera egiten zen nahiz subastan batek hartzen baldin bazuen, handik bi-hiru egunera edo, berriz atzera hartu denak haiek, eta berriz atzera bere hartan jan, eta egiten zen edo, hartzen baldin bazen han dirurik edo egiten zen gero ba, harekin bazkari bat edo...

– Eta garai haietan sutara enbor bat egin eta hura gordetzen zenik eta horrelako ohiturarik ezagutu duzue?

– Ez, hori urtean, zerean izaten zen, Pazkotan, su berria eta hori ez, ez.

– Su berria edo Pazkoan beraz, Aste Sandu ondoko Pazkotan?

– Bai, bai, orduan, orduan izaten zen, hor dagoen su hori dena kendu, dena kendu, eta handik ekartzen zen berria horrera sartu eta orduan jarri sutan berriz.

– Nondik «handik ekarri»?

– Hori elizan, elizan egiten zuen apaizak, ura eta sua berria, eta oraindik ez dira gainera urte asko hemen galdu dela gauza hori, oso urte gutxi.

– Eta beraz, Pazko egunean izango zen, Pazko bezperan?

– Pazko aurreko larunbata edo...

– Apezak egiten zuen eliza atarian sua?

– Bai, bai, bai, sua handia egiten zen eta, gero sua bedeinkatzen zen eta, bakoitzak bere, zera, suko zera bat esaten diogu, nardari³ edo, halako koskor batean hartu eta ekartzen zen sua eta, ordurako, handik etortzerako hemengo sua(k) bukatua egon behar zuen, garbi, hangoarekin piztu, su berria eta ura berria, eta... ura berriz jartzen zuen balde batean edo, han jartzen zuen ura apaizak eta hura bedeinkatzen zuen han, eta gero beste bat joan, eta gero txarroarekin edo botilekin edo hartu eta ekartzen zen.

– Eta etxean edo gorde egiten zen hori?

– Etxean gordetzen zen hura, eta harekin egiten ziren Aste Santuan, Aste Santuan kanpoak bedeinkatu eta gurutzeak egin, hori ere beste bat galdua da hemen.

– Eta bedeinkatu egiten zuen, apeza etorrita edo etxeko nagusiak?

– Norberak, etxeko nagusiak joan eta terreno guziak bedeinkatzen zituen, honek bedeinkatzen ditu orain ere, mendira joaten direnean hemen ardiak, egoten direnean, artzaia mendira joaten hasten denarekin batean, honek bedeinkatzen ditu ardiak gora joaterako.

Erramua, erramua, hostoa hartu eta, erramu hostoarekin: «nik bedeinkatzen zaituztet, eta dale tiki-taka» eta «ya está», egiten du eta...

(3) Nardai: Zuhaitz adar bat, gehienetan lizarrarena.

– Eta bedeinkatzen dira zer, belardiak, ardiak... zer?

– Denak, denak, ardiak eta belardiak eta soroak eta denak, denak bedeinkatzen dira, horiek aurrena apaizak Pazkoa bigarreanean denak bedeinkatzen ditu eh!, hortik, San Migel etortzen denean, San Migel aingerua etortzen denean, San Migel aingeruarekin batean herri guzia, dena, bedeinkatzen du hark baina hor norberak bere terrenoak egin eta, gurutzeak orain ez dute... Gurutzeak egin, eta gurutzeak terreno guzietan hantxe egoten ziren, Aste Santuan, eta Sanjuanetan elorri gurutzeak jarri, hori da betikoa, hemengo legea, baina, orain tonteriak omen direla eta, oso etxe gutxitan ikusten da orain elorriekin egindako gurutze bat, eta terrenoetan ere gurutzeak oso gutxi... Ateburuan, ateburu guzietan, gure etxean, bi etxeetan badago, han ere bai, eta hemen ere bai, elorri gurutzeak hor, bi burutan hortxe egoten dira jarrita. Baina tonteriak, lehengo zaharretako gauza denak, ez dira denak tonteriak eh!, horiek gazteak ez dezala pentsa lehengo zaharrek egiten zituztenak jada tonteriak direla, lehengo zaharrek egiten zituzten gauza ona asko, orain gazteek egingo ez ditugunak gainera, eta jadanik bazterrera utzi ditugunak, eta jada behin gauza bazterrera uzten denetik, jada ez da hasten.